

Zuzenbidea → Bizkalko foru zuzenbide zibila

%60

• **Bizkaitar forudunak.** Bizkaitarren %60 forudunak dira; alegia, Bizkalko foru zuzenbide zibila aplikatzen zaie. Gainerako %40ak, berriz, forugabeak dira, eta zuzenbide zibil orokorra aplikatzen zaie. Arabar enre, Lauñe eta Anasoian, Bizkalko foru zuzenbidea darabilte.

Ohiturretan oinarritutakoa arautzen du foru zuzenbideak

Nahiz eta legez zuzenbide zibil osoa arautzeko aukera izan, Bizkalko foru zuzenbideak ohiturretan oinarritutako erakundeak baino ez ditu arautzen: oinordekotzak, eskontzaren ondasunen jaupidea, tronkalekotasuna eta bide zorrik, batzuz ere. Zuzenbide orokorrak arautzen ditu gainerako erakundeak.

13

• **Zuzenbide zibil orokorreko herriak.** Herriotako lur eremu batzuetan ezartzen da zuzenbide zibil orokorra: Balmaseda, Urduña, Bilbo, Obando, Portugalete, Ermua, Ondarrea, Durango, Plentzia, Bermeo, Gemika, Lekelito eta Lanestosa. Bizkalko jaun-andreak sortu zituzten.



María Díaz Herrikoa, Bizkalko andrea. HITZA



Bizkalko Foru Zahararen lehen eskuzkribua ezkerretara, eta Foru Berriaren azala eskumatara. HITZA

Bizkaian, bi zuzenbide zibil daude indarrean: foruetatik datorren foru zuzenbide zibila eta Espainiako zuzenbide zibil orokorra. Eskubide eta betebeharrak ezberdinak aitortzen ditu bakoitzak.

Lurralde bakarra, bi auzotasun

Ibai Maruri Bilbao Bilbo

Bidira herri baten nortasun adierazle garrantzitsua: alde batetik, bizkaitza; bestetik, zuzenbidea. Alegia, familia eta gizarzeta antolatze sortzen den sistema berdea. Modu horretan nabarmendu du Gonzal Aizpurua abokatuak zuzenbide zibilarri estuaren garrantzia. Bizkalko Abokatuaren Buzuneko Gobernu Batzordeko eta Foru Zuzenbide Zibileko Batzordeko kide da. Euskal Herrian, jatorrizko zuzenbide indar tsuen gorde duten herrialde historikoetako bat da Bizkaia. Hala, bi zuzenbide zibil ditu:

zuzenbide zibil orokorra —Espainiako— eta Bizkalko foru zuzenbide zibila.

Auzotasunaren arabera —nongoa den aintzat hartuta, alegia—, kode zibil bat edo bestes ezartzen zaio bakoitzari bakoitzari. Bizkaitar guztiak dira forudunak, hiribilduetakoak eta Urduñakoak izan ezik; eta leku horietan ere badaude salbuespenak. Horren ondorioz, ezberdinak izan daitezke, adibidez, bizkaitar forudun batek eta bizkaitar forugabe batek senpartea uzterakoan inongo ditzuten eskubide eta betebeharrak. Hona hemen bi zuzenbideen arteko ezberdintasunik nabarmenak.

1. Tronkalekotasuna

Bizkalko foru zuzenbidearen ezaugarririk adierazgarrienetakoa da. Zuzenbide zibil orokorra, ordea, ez du halakorik. «Ia-betak zeukan izanaren arabera —koletitoba eta ez indibidualista—, ondasun batzuk familiari lotuta daude; familiarenak dira, eta familian jarraitu behar dute». Tronkalekotasun horrek oinordekotzari eragiten dio, testamentu bidezkoan eta testamenturik bakoan; baina baita eskualdaketetan ere. Tronkaleko senide batzuek ondasunak eskuzteko eskubidea dute, tronkalekoak ez diren beste senide batzuen



aurretik; eskontzidearen aurretik, easterako.

Bizkaia zuzenbide zibilaren mendeko herri batean higiezin bat duenaren adibidez jarri du Aizpurua. «Ondasun hori aurretik bat-datorrik, familiaren izanlekoa bada, derrigorren nire familakoet utzi behar diet, nahiz eta, seme-alabarik izan ez dugunez, testamentu esan alagunari utzi diodala». Kasu horretan, senideok testamentua duteszatzeko eskututa, eta ondasunaren jabe egin daitezke.

Eskualdaketetan ere beste borrenbeste gertatzen da. Errosteko, lehentasuna dute tronkalekotasunaren parte diren senideek,

eta, saldu aurretik, asmo horien berrri ematek behar zaie, notario bidez. «Jakinazapen egina gabe, senideek eskubidea dute salerosketa hori deusezatu eta bideko tasazio prezioan eskuzteko. «Egun, bada salbuespen bat: hiri lur diren gunetan, ez dago lehentasun eskubiderik».

2. Oinordekotza

Foru zuzenbide zibila ezartzen zaien bizkaitarrek, oinordekotza antolatzerakoan behartuta daude ondorengo ondasunen lau bosten uztera. Zuzenbide zibil

